

MANUEL LEKUONA IKERKUNTZARAKO BEKA EMATEKO 2021 URTEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Oiartzungo Udalak kultura arloan duen helburuetako bat gure herriko Historiari eta ezaugarri sozio-kulturalei buruzko azterketak bultzatzea izanik, “Oiartzungo burdinolen inguruko azterlan bat egiteko, zehazki, Ergoien auzoan dauden Olaberria eta Olaunditu burdinolen Historiari buruzko *Manuel Lekuona* ikerkuntzarako beka” emateko deialdia egitea erabaki du.

Deialdi honetarako oinarriak hauexek izango dira:

1 ARTIKULUA. XEDEAK

Deialdi honen helburua 2021eko Manuel Lekuona bekaren oinarriak arautzea da.

Beka honekin, Oiartzungo burdinolen inguruko azterlan bat egitea sustatu nahi da, zehazki, Ergoien auzoan dauden Olaberria eta Olaunditu burdinolen inguruan.

Lan honek, bi esparru landu beharko ditu:

- Azterlan historikoa. Burdinola hauen historia, besteak beste, sorrera, ezaugarriak, kudeaketa eta momentuko testuingurua ulertzeko beharrezkoa den ikerketa.
- Burdinolak balioan jartzeko proposamena. Etorkizunean burdinola hauen ezaugarriak eta balioa herritarrei erakusteko hartu litezkeen neurrien proposamena.

Edozein kasutan, lanaren irismena ez da alderdi teorikotik haratago joango eta Oiartzungo Udalak ez du konpromisorik hartzen balioan jartzeko neurrien gauzatzeari buruz.

2 ARTIKULUA. HAUTAGAIK

Laguntza honetara aurkeztu ahal izango dira, xedean aipatzen den gaia aztertzeke gaitasuna duten norbanako zein taldeak. Bigarren kasu horretan, ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.

3 ARTIKULUA. IRAUPENA

Proiektua aukeratu eta beka esleitu ondoren, hurrengo egunetan hasiko da lana, eta azken txostena bederatzi hilabetera aurkeztu beharko da.

4 ARTIKULUA. DOKUMENTAZIOA, EPEAK ETA PROZEDURA

4.1 Dokumentazioa

Onuradunek, jarrian aipatzen den dokumentazioa ekarri beharko dute:

1. Ikerkuntza proiektuaren Txosten-Laburpena (gutxienez 10 orri eta gehienez 20 orri) eta bertan azaldu beharko dituzte:

- Proiektuaren oinarritzko nondik-norakoak eta deialdiaren xedearekin lerrokatzea.
- Metodologia eta plangintza.
- Aztergaiak.
- Erabiliko dituzten iturburuak.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Lana zein hizkuntzatan idatziko duten.
- Oiartzungo Udalaren Ondarearen proiektuan eta www.ondarea.oiartzun.eus webgunearekin nola txertatzen den.
- Argitaratzeko eta ezagutzera emateko egitasmoak.
- Genero ikuspegia txertatzeko neurriak.

Horrez gain, Manuel Lekuona Beka 2021 jartzen duen gutun azal batean aurkeztu beharko dira:

2. Eskatzaileen datuak.
3. Eskatzailearen NA agiriaren kopiak.
4. Ikasketa-titulazioa eta ikasketako edo ikerkuntzako merezimenduak.
5. Eskatzailearen lan egoera ziurtatzen duen agiria.
6. Eskatzailearen kontu korrontea eta horren titulartasun agiria.

4.2 Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak Oiartzungo Kultura Sailan aurkeztu beharko dira 2021eko irailaren 30a baino lehen.

4.3 Prozedura

1. Aurreko artikuluan aipatutako epean, onuradunek eskaerak aurkeztuko dituzte Oiartzungo Udalaren erregistroan edo egoitza elektronikoan.
2. Baldin eta eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, edo oinarri hauetako baldintzak beteko ez balitu, 10 lan- eguneko epea izango dute zuzentzeko edota osatzeko. Gainera, ohartaraziko zaie hala egin ezean, eskaera bertan behera geratuko dela, eta, horrenbestez, artxibatuta.
3. Hau guztia kontutan izanik bere epaia emango du.
4. Kultura Batzordeak, epaimahaiaren erabakia berretsiko du.
5. Erabakia berretsita, onuradunari jakinaraziko zaio. Erabakia jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Kasu guztietan eskatzaileei erabakiaren berri emango zaie, eta argitaratu eta publikoa egingo da.

5 ARTIKULUA. EPAIMAHAIA

Epaimahai Kalifikatzailea, Historia eta Kultura arloekin lotura duten eta Oiartzungo Udalak izendatutako pertsonak osatuko dute.

Epaimahaia honela eratuko da: Kultura Arloko zinegotzi delegatua, Kultura Arloko teknikaria, Ondarean aditua den pertsona bat.

Horiez gain, epaimahaiak hala erabakiko balu, aurkeztutako gaien inguruko pertsona adituen laguntza eta aholkularitza eska dezake.

Epaimahai Kalifikatzaileak funtsean eta batik bat baloratuko dituen esparruak:

- Proiektuak izan dezakeen interesa eta 1. artikuluan ezarritako esparruekin bat etortzea.
- Zuzentasun zientifikoa eta deialdiaren helburuekiko lotura.
- Oiartzungo Udalaren Ondarearen proiektuarekin eta www.ondarea.oartzun.eus webgunearekin behar bezala lerrotatua dagoela. Bereziki baloratuko da www.ondarea.oartzun.eus webgunea elikatze materiala sortzea.

Epaimahai honek ahalmena izango du, aurkeztutako ikerketa proiektuaren ulerpenerako beharrezkotzat ematen duen informazio osagarria eskatzeko, eta behar izanez gero, egileek Epaimahaiaren aurrean beren Txosten-Laburpena aurkeztu eta azaldu dezaten eskatzeko.

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du oinarri hauek ulertzeko eta deialdia garatzerakoan aurreko klausuletan zehazki aurreikusi gabeko arazorik sortuz gero, hauek erabakitzeke.

6 ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- Beka onartzen dutela adierazi beharko dute idatziz, horren berri ematen zaienetik gehienez hamabost eguneko epearen barruan.
- Lanak behin betikoz amaitutakoan, euskaraz edota euskaraz eta gazteleraz edota euskaraz eta frantsesez idatzita -paperean eta euskarri informatikoan- Oiartzungo Udaleko Kultura Zerbitzuan aurkeztuko dira. Honako ezaugarriak izango dituzte:
 - o Paperezko formatuan DIN A4 orritan eman beharko da ikerlana, 2 tarte inprimatuta gutxienez 100 eta gehienez 200 orriko kopuruan.
 - o Testua ez den elementu oro orrialdeetan zehar edo tokirik ez balego lanaren bukaeran, eranskin gisa, txertatuko da. Era horretako elementu bakoitzak behean bere azalpentxoan izan beharko du. Edozein kasutan, lanak gutxienez testuko 200 orrialderen baliokidea izan behar du.
 - o Txosten nagusian sartzen ez den material gehigarria, eranskinetan aurkeztu ahal izango da. Eranskinetako orrialdeak ez dira kontuan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxienekoak betetzeko.
 - o Irudiak, marrazkiak, argazkiak eta abar, amaierako testuan sartuko diren arren, aparteko fitxategietan entregatu beharko dira, gutxienez hazbeteko 300 pixeleko bereizmenarekin.
- Lanarekin batera aurkeztu beharko ditu, horren laburpena eta edukiaren berri ematen duten eta dokumentuen datu basean sartzeko baliagarri diren deskribatzaileak. Laburpen eta deskribatzaile horiek hiru hizkuntzetan -

euskaraz, gazteleraz eta EKEko hizkuntza ofizialetako batean- idatzita egon beharko dute.

- Lanaren emaitzak www.ondarea.oiartzun.eus webguneko datu basean txertatzea eta webgune hori alor horri dagokionez elikatzeko moduko edukiak sortzea.
- Oiartzungo Udalak sustatu duen Ondarearen Mahaiari lana azaltzea.
- Egileak lana amaitutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko du, Oiartzungo Udalarekin eta Ondarearen Mahaiarekin elkarlanean.
- Arrazoi garrantzitsuren batengatik egiletakoren batek bere ikerkuntzan funtsezko aldaketak egin beharko balitu edo finkatutako epearen barruan lanak amaitzerik ez duela aurreikusiko balu, aldeztu aurretik Kultura Zerbitzuari adierazi beharko lioke, behar bezala arrazoitutako eskaera baten bidez. Honelakorik gertatuz gero, berriro Epaimahai Kalifikatzailea deituko litzateke eta honek, egoeraren arabera, onartu edo baztertuko litzuzke aldaketa eta luzapen horiek, beti ere lanak entregatzeko epe berria ezarriz.

7 ZENBATEKOA ETA ORDAINKETAK

Emango den Beka 6000 eurokoa izango da, gastu guztiak eta zerga guztiak barne.

Laguntza eman aurretik, dagozkion izapide administratiboak gauzatu beharko dira, eta ondoren zehazten den moduan ordainduko da:

- Kopuru osoaren %40a, onartzen den une berean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren %60a, egindako lana aurkeztutakoan eta txostena eta emaitzak aurkeztuta.

8 LANEN JABETZA

Oiartzungo Udalak ahalmena izango du lanak bakarka edo elkarrekin eta Elkartea Autonomoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan argitaratzeko.

Ikerlanaren ale originala beti Oiartzungo Udal Artxiboan eta www.ondarea.oiartzun.eus webgunearan datu basean gordeko da, informazio historikorako dokumentu moduan eta behar diren kontsultak egiteko.

9 JABETZA INTELEKTUALA

Jabetza Intelektualari dagokionez, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuko Testu Bategina aplikatuko da.

10 GORA-BEHERAK

Aurreko klausula horietakoren bat beteko ez balitz, Beka indarrrik gabe geratuko litzateke eta onuradunek jasotako dirua itzuli egin beharko lukete.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2019-2021rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluari jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

Deialdi honetan parte hartzen duenak, oinarri hauek onartzen dituela ulertzen da.

Oiartzun, 2021eko ekainak 22